

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea 2020ko ekitaldian kreditu gehigarri bidez aurrekontua aldatzeko espedienteari (8.2020 aldaketa)

Iruraiz-Gaunako udalbatzak, 2020ko abuztuaren 24ko bilkura berezian, behin-behineko onespena eman zion 2020ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu gehigarri bidez kreditu aldaketa hau egiteko espedienteari:

Kreditu gehigarria, honako aurrekontu aplikazio honetarako:

439.471.000	10.000,00	Kreditu gehigarria handitzea
-------------	-----------	------------------------------

Kreditu gehigarria gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago.

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren 38/2013 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, aurrekontu aldaketaren espediente osoa helarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Toki Erakundeen Sailari, eta hark ez du inolako eragozpenik adierazi aurreikusitako hogeita hamar egunetan.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 169. artikuluan xedatutakoaz baliatuz, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliiodunez, eta udalbatzari aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak onartuko dira epe horretan.

Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Azilu, 2020ko urriaren 26a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO